Abierta la deliberación, intervienen en este punto los/la señores/a D. Loïc Alejandro, D.^a Amaia Almirall Lopez de Luzuriaga, D. Juan Ramon Viles Mitxelena, D. José Luis Arrúe Pintó y D. Alfonso Gurpegui Ruiz, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

BOZKETAREN EMAITZA:
BAZTERTUA.
GEHIENGOA.
ALDEKO BOTOAK: 2 – IRABAZI DONOSTIA.
AURKAKO BOTOAK: 16 – (7) EAJ-PNV, (6) PSE-EE, (3) PP.
ABSTENTZIOAK: 6 – EH BILDU.

RESULTADO DE LA VOTACIÓN:
RECHAZADA.
MAYORÍA.
VOTOS A FAVOR: 2 – IRABAZI DONOSTIA.
VOTOS EN CONTRA: 16 – (7) EAJ-PNV, (6) PSE-EE, (3) PP.
ABSTENCIONES: 6 – EH BILDU.

II.1.2.11. Kontrol mozioa, IRABAZI DONOSTIA taldeak aurkeztua, sarietan genero ikuspegia txertatzeari buruzkoa.

II.1.2.11. Moción de control que presenta el Grupo IRABAZI DONOSTIA en relación con la incorporación de la perspectiva de género en premios.

“Irabazi Donostia udal taldearen bozeramaile Amaia Martin Garinek, Udalbatzaren Araudi Organikoko 98. artikuluan oinarrituta, KONTROL MOZIO hau aurkezten du, sarietan genero ikuspegia txertatzeari buruz hilabete honetako PERTSONENTZAKO ZERBITZUEN BATZORDEAN egindako interpelazioaren

“Amaia Martin Garin, Portavoz del Grupo Municipal Irabazi Donostia, de acuerdo con el artículo 98 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta la siguiente MOCIÓN DE CONTROL, consecuencia de la interpelación en la Comisión de SERVICIOS A LAS PERSONAS de este mes en relación con la

ondorioz.

incorporación de la perspectiva de género en premios.

JUSTIFIKAZIOA

JUSTIFICACIÓN

Donostiako Udalaren Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako III. Plana (2014-2018) amaitzekoa da laster, eta badu garrantzi handiko atal bat, Donostiako agenda kulturean genero ikuspegia txerta dadin sustatzeari buruzkoa.

El III Plan para la Igualdad de Mujeres y Hombres del Ayuntamiento (2014-2018) próxima a cumplir su finalización temporal cuenta con un apartado importante en el impulso por integrar la perspectiva de género en la agenda cultural de la ciudad.

Gure ustez, funtsezkoa da atal hori, kulturak aukera ugari ematen baititu gizonen eta emakumeen berdintasun egiazko baten aldeko konpromisoa ikusarazteko. Donostian egiten diren jaialdietan sariak ematean genero ikuspegia txertatzea da helburua.

Consideramos fundamental las posibilidades que la cultura ofrece en la visualización del compromiso por una igualdad real entre hombres y mujeres. Se trata de integrar la perspectiva de género en la concesión de premios en los distintos festivales que se desarrollan en la ciudad.

Planak, ordea, ez du lortu berdintasunerako sariak sortzea, adibidez, Donostiako Zinemaldian, nahiz eta horrek sekulako oihartzuna izan zezakeen, eta horregatik, interpelazio bat egin genuen hilabete honetan. Batzorde hartan, zinegotzi ordezkariak esan zuen Zinemaldiaren zuzendariarekin harremanetan jarri zirela eta proposamen horri buruz adierazi zuela berdintasunerako saririk sortzeko asmorik ez dutela. Esan zuen, halaber, Giza Eskubideen Zinemaldian, adibidez, pausoak eman direla, sariak kremlera sistemaren bidez emanaz.

Teniendo en cuenta que este Plan no ha conseguido incorporar premios por ejemplo en el Festival Internacional de Cine, con la repercusión que este hecho podía ofrecer, presentamos este mes una interpelación. En la comisión correspondiente, la concejala delegada señaló que habían contactado con el director del Zinemaldia y ante la propuesta señalaba que no contemplaban la creación de un premio para la Igualdad. Del mismo modo, señaló que en este ámbito se había avanzado por ejemplo en el Festival de cine de DDHH con la concesión de premios con sistema cremallera.

Kontuak kontu, deigarria da Zinemaldiak berdintasunerako sari bat sartzeko asmorik ez izatea, kontuan izanda zer-nolako oihartzuna izan dezakeen palmaresean horrelako sari bat sartzek, eta erakutsi nahi ez izatea Zinemaldiak konpromisoa duela berdintasuna lortzearekin artearen eremu horretan, non bizitzako gainerako arloetan bezala, gizonen eta emakumeen berdintasuna lortzeko bidean

Lo cierto es que resulta llamativo que el Zinemaldia no se plantee la incorporación un premio para la igualdad con la repercusión que pudiera tener la incorporación en el palmarés de un premio tal posibilitando visualizar su compromiso con la igualdad en este ámbito artístico donde resulta, como en el resto de ámbitos de la vida, imprescindible avanzar hacia la igualdad de hombre y mujeres.

pausoak ematea ezinbestekoa den. Kontuan izanda palmaresaren barruan badirela Zinemaldia babesten edo laguntzen duten zenbait enpresaren izena daramaten sari ofizialak, ez litzateke zaila izango Udalak berak ematea Zinemaldiko Berdintasunerako saria, atal horretan edo bestela dauden sari paralelo ugarien eremuan (Greenpeaceren Lurra saria eta Gipuzkoako odol-emaleen elkarteak ematen duen Elkartasunaren saria dira bi adibide).

Bestalde, 1994tik, Heineken Jazzaldia Donostiako Jazzaldia saria ematen dio jazz munduan nabarmena den musikari edo abeslari bati, jazzari egindako ekarpenaren aitortza gisa. 23 urte hauetan eman diren sari guztietan, bi baizik ez dira izan emakumeentzat, eta Shirley Horn saritu zutenean, gainera, 2004an, Fernando Truebari ere beste sari bat eman zioten.

Donostian egiten diren jaialdi garrantzitsuenei buruzko datuak bilduta, eta abian den Berdintasunerako III. Planean ezarritako helburuetako bati jarraituz, hauxe da gure

KONTROL MOZIOA

1. Donostiako Udaltzarak Gobernu taldeari eskatzen dio susta dezala arte eszenikoen jaialdietan berdintasunerako sariak sor daitezen, nagusiki musika eta zinema jaialdietan, Donostiak gizonen eta emakumeen berdintasun egiazkoa lortzearekin duen konpromisoa agerian gera dadin.

Donostia, 2017ko azaroaren 17a

Sinatua: Amaia Martin Garin,
Irabazi Donostia udal taldearen bozeramailea”.

Teniendo en cuenta que dentro del palmarés, hay otros premios oficiales con la denominación de empresas colaboradoras o patrocinadoras del Festival, bien podría incluirse en tal sección o en el ámbito de los numerosos premios paralelos que recoge la organización (premio lurra de Greenpeace o premio de la asociación de Donantes de sangres de Gipuzkoa a la Solidaridad) el propio ayuntamiento sea quien dé el premio a la Igualdad del Zinemaldia.

Por otro lado, desde 1994, el Festival de Jazz de San Sebastián/Heineken Jazzaldia entrega el Premio Donostiako Jazzaldia a una figura destacada, como reconocimiento a su contribución al jazz. Del total de premios otorgados en estos 23 años, solo en dos ocasiones han sido para mujeres y en el caso de Shirley Horn en el año 2004 también se le dio otro premio a Fernando Trueba.

Recogidos los datos de los festivales más relevantes de la ciudad, y siguiendo con uno de los objetivos marcados en el III Plan para la Igualdad en marcha, presentamos la siguiente:

MOCION DE CONTROL

1. El Pleno del Ayuntamiento de Donostia / San Sebastián insta al Equipo de Gobierno a impulsar la creación de premios para la igualdad en los festivales de diferentes artes escénicas, fundamentalmente musicales y cinematográficos, al objeto de visualizar el compromiso de la ciudad con la igualdad real de hombres y mujeres.

Donostia, 2017ko azaroaren 17a

Fdo.: Amaia Martin Garin
Portavoz del Grupo Municipal Irabazi Donostia”.

Eztabaida hasita, Amaia Martin Garin andreak, Amaia Almirall Lopez de Luzuriaga andreak, Duñike Agirrezabalaga Ugarte andreak, Miren Azkarate Villar andreak eta Jose Luis Arrue Pinto jaunak parte hartu dute puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, intervienen en este punto el/las señor/as D.^a Amaia Martín Garín, D.^a Amaia Almirall Lopez de Luzuriaga, D.^a Duñike Agirrezabalaga Ugarte, D.^a Miren Azkarate Villar y D. José Luis Arrúe Pintó, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

BOZKETAREN EMAITZA:

BAZTERTUA.

GEHIENGOA.

ALDEKO BOTOAK: 2 – IRABAZI DONOSTIA.

AURKAKO BOTOAK: 15 – (8) EAJ-PNV, (7)

PSE-EE.

ABSTENTZIOAK: 9 – (6) EH BILDU, (3) PP.

RESULTADO DE LA VOTACIÓN:

RECHAZADA.

MAYORÍA.

VOTOS A FAVOR: 2 – IRABAZI DONOSTIA.

VOTOS EN CONTRA: 15 – (8) EAJ-PNV, (7)

PSE-EE.

ABSTENCIONES: 9 – (6) EH BILDU, (3) PP.

II.1.2.12. Kontrol mozioa, IRABAZI DONOSTIA taldeak aurkeztua, Arroko udal eraikinari buruzkoa.

“Irabazi Donostia udal taldeko zinegotzi Loïc Alejandrok, Udalbatzaren Araudi Organikoko 98. artikuluan oinarrituta, KONTROL MOZIO hau aurkezten du, Arroko udal eraikinari buruz hilabete honetako ZERBITZU OROKORREN BATZORDEAN egindako interpelazioaren ondorioz.

JUSTIFIKAZIOA

Joan den urriaren 24an, Tokiko Gobernu Batzarrak Arroka plazan udal ekipamendu berri bat egiteko eraikuntza proiektua onartu zuen. Eraikin horretan jarriko da lehen Easo kalean zegoen Bainuetxearen fatxada.

II.1.2.12. Moción de control que presenta el Grupo IRABAZI DONOSTIA en relación con el edificio municipal de Arroka.

“Loïc Alejandro, concejal del Grupo Municipal Irabazi Donostia, de acuerdo con el artículo 98 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta la siguiente MOCIÓN DE CONTROL, consecuencia de la interpelación en la Comisión de SERVICIOS GENERALES de este mes en relación con el edificio municipal de Arroka.

JUSTIFICACIÓN

El pasado 24 de octubre la Junta de gobierno local aprobó un proyecto de construcción para realizar un nuevo equipamiento municipal en la plaza Arroka. En este edificio se colocará la fachada de la antigua Casa de Baños que se ubicaba en la calle Easo.

Jakin ahal izan dugunez, eraikinak bi solairu eta 350 metro karratu izango ditu. Aurreikusitakoaren arabera, bulegoak eta bi bilera gela atonduko dira bertan, bai eta 100 metro karratu inguruko lokal bat ere. Eraikuntzarako aurrekontua 900.000 eurokoa da, nahiz eta oraindik ez dagoen erabakita eraikinari zer erabilera emango zaion.

Hori ikusita, interpelazioa egin genion Gobernuari, jakiteko nolatan erabaki zen eraikin baten eraikuntza onartzea zertarako erabiliko den jakin gabe eta ea hori erabakitzeko parte hartzeko prozesu bat egiteko aukerarik baden, eta Gobernuaren erantzuna izan zen, besterik gabe, beste daturik ez duela eta horrelako erabakiak bere erantzukizunetatik kanpo daudela. Edonola ere, garrantzitsua da herritarrei argitzea gai horri buruz zer erabaki har ditzaketen, eraikitzearen dagoen udal eraikin horrek herritarren beraien eskaerei erantzuteko balio baitezake.

Beraz, hortxe dugu berriro beste udal eraikin bat, zehaztu gabe duena zertarako erabiliko den, eta horrenbestez, gure ustez hauxe da une onena zer erabilera emango zaizkion auzoko bizilagunen eta Udalaren beraren artean erabakitzeko.

Gure iritziz, haur txoko eta gazte leku bat jartzea da aukera bat, auzoko neska-mutilek aisialdirako leku bat izan dezaten. Bestalde, elkarteentzako lokalak ere eskatzen dituzte auzoan.

Edonola ere, gure iritziz garrantzi handikoa da Udal Gobernuak herritarrak aintzat hartzea Bainuetxea izango den udal eraikin berria zertarako erabili erabakitzeko.

Horrexegatik, hauxe da gure

Según hemos podido conocer, el edificio tendrá dos plantas y 350 metros cuadrados. En él se prevé ubicar oficinas, dos salas de reuniones y un local de unos 100 metros cuadrados. El presupuesto para la construcción es de 900.000 euros, si bien aún no se ha decidido el uso que se le va a dar.

Ante la interpelación realizada al Gobierno sobre la decisión de aprobar la construcción de un edificio sin conocer el uso destinado al mismo, y la posibilidad de llevar a cabo un proceso participativo para determinarlo, éste se limitó a contestar que no tiene más datos, y que tales decisiones están fuera de su responsabilidad. En todo caso, es importante tratar de clarificar a la ciudadanía las decisiones que sobre este ámbito puedan tomar, ya que el edificio municipal a construir puede dar servicio a demandas de la propia ciudadanía.

Por lo tanto, nos encontramos ante un nuevo espacio municipal cuyos usos aún no se han decidido, por lo que creemos que es momento idóneo para decidir entre la ciudadanía del barrio y el propio Ayuntamiento, los usos del mismo.

Desde nuestro punto de vista, uno de ellos podría ser un haurtxoko y gazteleku que sirva de espacio de ocio para los niños y niñas del barrio. Igualmente, existen en el barrio demandas de locales para las asociaciones.

En todo caso, consideramos importante que el gobierno municipal cuente con la ciudadanía para decidir los posibles usos del nuevo edificio municipal Casa de Baños.

Es por ello que presentamos la siguiente:

KONTROL MOZIOA

1. Donostiako Udalbatzak Udal Gobernuari eskatzen dio Amarako bizilagunak behar bezala informa ditzala auzoan egiten ari diren lanei buruz.

2. Donostiako Udalbatzak Udal Gobernuari eskatzen dio Amarako bizilagunekin parte hartzeko prozesu bat egin dezala Arroako udal eraikina (Bainuetxea) zertarako erabili erabakitzeko.

Donostia, 2017ko azaroaren 17a

Sin.: Loïc Alejandro,
Irabazi Donostia udal taldeko zinegotzia”.

MOCION DE CONTROL

1. El Pleno del Ayuntamiento de Donostia / San Sebastián insta al Gobierno municipal a mantener informado adecuadamente al vecindario del barrio de Amara de la situación de las obras que se están llevando a cabo en el mismo.

2. El Pleno del Ayuntamiento de Donostia / San Sebastián insta al gobierno municipal a llevar a cabo un proceso participativo con la ciudadanía del barrio de Amara para decidir el uso del edificio municipal de Arroka – Casa de Baños – que se va a construir en el mismo.

Donostia a 17 de noviembre de 2017

Fdo.: Loïc Alejandro
Concejal del Grupo Municipal Irabazi Donostia”.

Eztabaida hasita, Loïc Alejandro jaunak, Ricardo Burutaran Ferre jaunak, Juan Ramon Viles Mitxelena jaunak, Miren Albistur Garmendia andreak eta Ernesto Gasco Gonzalo jaunak parte hartu dute puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, intervienen en este punto los/la señores/a D. Loïc Alejandro, D. Ricardo Burutarán Ferré, D. Juan Ramón Viles Mitxelena, D.ª Miren Albistur Garmendia y D. Ernesto Gasco Gonzalo, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

HALA ESKATU DUTENEZ, BOZKETA PUNTUKA EGITEA ONARTU DA / PREVIA SOLICITUD, SE ACCEDE A LA VOTACIÓN POR PUNTOS:

12. KONTROL MOZIOAREN 1.GO PUNTUAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL PUNTO N.º 1 DE LA MOCIÓN DE CONTROL N.º 12:

BOZKETAREN EMAITZA:
BAZTERTUA.
ALDEKO BOTOAK: 11 – (6) EH BILDU, (3)

RESULTADO DE LA VOTACIÓN:
RECHAZADA.
VOTOS A FAVOR: 11 – (6) EH BILDU, (3) PP,

PP, (2) IRABAZI DONOSTIA.
AURKAKO BOTOAK: 15 – (8) EAJ-PNV, (7)
PSE-EE.
ABSTENTZIOAK: 0.

(2) IRABAZI DONOSTIA.
VOTOS EN CONTRA: 15 – (8) EAJ-PNV, (7)
PSE-EE.
ABSTENCIONES: 0.

12. KONTROL MOZIOAREN 2. PUNTUAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL PUNTO N.º 2 DE LA MOCIÓN DE CONTROL N.º 12:

BOZKETAREN EMAITZA:
BAZTERTUA.
ALDEKO BOTOAK: 8 – (6) EH BILDU, (2)
IRABAZI DONOSTIA.
AURKAKO BOTOAK: 15 – (8) EAJ-PNV, (7)
PSE-EE.
ABSTENTZIOAK: 3 – PP.

RESULTADO DE LA VOTACIÓN:
RECHAZADA.
VOTOS A FAVOR: 8 – (6) EH BILDU, (2)
IRABAZI DONOSTIA.
VOTOS EN CONTRA: 15 – (8) EAJ-PNV, (7)
PSE-EE.
ABSTENCIONES: 3 – PP.

II.1.2.13. Kontrol mozioa, IRABAZI DONOSTIA taldeak aurkeztua, Kultura Kontseiluari buruzkoa.

II.1.2.13. Moción de control que presenta el Grupo IRABAZI DONOSTIA en relación con el Consejo Asesor de Cultura.

KENDUA.

RETIRADA.

II.1.2.14. Kontrol mozioa, IRABAZI DONOSTIA taldeak aurkeztua, genero politikak transbertsalizatzeari buruzkoa.

II.1.2.14. Moción de control que presenta el Grupo IRABAZI DONOSTIA en relación con la transversalización de las políticas de género.

“Irabazi Donostia udal taldearen bozeramaile Amaia Martinek, Udalbatzaren Araudi Organikoko 98. artikulua oinarri, ondorengo KONTROL MOZIOA aurkeztu du, hil honetan Pertsonentzako Zerbitzuetako Batzordean genero politiken transbertsalizazioari buruz

“Amaia Martin Garin, Portavoz del Grupo Municipal Irabazi Donostia, de acuerdo con el artículo 98 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta la siguiente MOCIÓN DE CONTROL, consecuencia de la interpelación en la Comisión de SERVICIOS A LAS

egindako interpelazioaren ondorioztat.

PERSONAS de este mes en relación con la transversalización de las políticas de género.

JUSTIFIKAZIOA

JUSTIFICACIÓN

Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako III. Planeko (2014-2018) lehen esku hartze erroak, Gobernantzari buruzkoak, hau adierazten du: Administrazioaren jardunean generoaren ikuspegia integratzeak gobernantza hobetzen laguntzen du, eta Donostiako Udalak berdintasunarekin duen konpromisoa sendotu eta esku hartze publiko eraginkor, efiziente eta bidezkoago baten alde egiten du.

La primera de las líneas de actuación del III Plan para la Igualdad de Mujeres y Hombres del Ayuntamiento (2014-2018) que versa sobre la Gobernanza señala que: La integración de la perspectiva de género en la actuación administrativa contribuye a mejorar la gobernanza, fortaleciendo el compromiso del Ayuntamiento de Donostia/San Sebastián con la Igualdad y favoreciendo una intervención pública más eficaz, eficiente y equitativa.

Genero ikuspegia edo genero mainstreaming-a integratzea, gaur egun nazioartean eta Europan gomendatzen den lan estrategia bat izateaz gain, euskal botere publikoen jarduna zuzendu eta orientatu behar duen printzipio orokorretako bat da, emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan, Emakumeen eta gizonen berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen 3.4 artikuluan ezartzen den moduan.

La integración de la perspectiva de género o mainstreaming de género, además de una de las estrategias de trabajo actualmente recomendada a nivel internacional y europeo, constituye uno de los principios generales que deben regir y orientar la actuación de los poderes públicos vascos en materia de igualdad de mujeres y hombres, tal y como se contempla en el artículo 3.4 de la Ley 4/2005, de 18 de febrero, para la Igualdad de Mujeres y Hombres.

Artikulu horrek zera dio:

Este artículo dice lo siguiente:

3.4. artikulua. Genero ikuspegiaren integrazioa.

Artículo 3.4. Integración de la perspectiva de género.

Euskal herri aginteeek genero ikuspegia txertatu behar dute beren politika eta ekintza guztietan, halako moduz non horietan guztietan ezberdintasunak ezabatzeko eta emakumeen eta gizonen berdintasuna sustatzeko helburu orokorra ezarriko duten.

Los poderes públicos vascos han de incorporar la perspectiva de género en todas sus políticas y acciones, de modo que establezcan en todas ellas el objetivo general de eliminar las desigualdades y promover la igualdad de mujeres y hombres.

Emakumeen eta gizonen desparekotasunak ezabatzen dituzten ekintza eta politikak garatu ahal izateko, funtsezkoa da hiriko errealitatea ezagutzea, informazio guztia sexuaren arabera

Para poder desarrollar acciones y políticas que eliminen la desigualdad entre hombres y mujeres es fundamental conocer la realidad de la ciudad con toda la información desagregada

bereizita. Gaur egun hori ez da egiten, E2020 DSS Estrategia eta Hiritarren Pertzepzioari buruzko inkesta (2017) dokumentuetan ikusi ahal izan dugunez, besteak beste.

Hilabete honetan batzordean aurkeztu den interpelazioan, igortzen den informazio guztia sexuaren arabera banatzeko beharrari buruzkoan, gaur egungo errealitatea ezagutu eta eraldatu ahal izateko oinarri gisa, zinegotziak adierazi du horretan dabilzala eta baliabide gehiago jartzen ari direla. Dena den, 2018rako aurrekontuen proiektua ikusirik, berdintasun programan deigarria da berdintasun bulegoko langileei buruzko kapituluko diru partida ez dela handitu, kontuan izanda hori dela emakumeen eta gizonen berdintasun errealerako ezinbestekoak diren politikak behar bezala garatzeko funtsezko oinarrietako bat.

Horregatik aurkezten dugu ondorengo

KONTROL MOZIOA

1. Donostiako Udalbatzak Gobernu Taldeari eskatzen dio kronograma bat ezar dezala udal estatistikak eta azterketak egokitzeko eta informazio guztia sexuaren arabera banatuta egon ahal izateko, hiriko emakumeen egoera erreala ezagutzeko oinarri gisa; eta hortik abiatuta, Udalaren emakumeen eta gizonen berdintasunerako hurrengo plana garatzeko.

2. Donostiako Udalbatzak Gobernu Taldeari eskatzen dio berdintasun programaren aurrekontuko partida handitu dezala, berdintasun bulegoko plantilla handitu ahal izateko; izan ere, hori oinarritzkoa da udalak emakumeen eta gizonen berdintasun erreala

por sexos, hecho que no se lleva a cabo en la actualidad, tal y como hemos podido ver entre otros documentos en la propia Estrategia E2020 DSS o en la encuesta de percepción ciudadana 2017.

En la interpelación presentada en comisión el presente mes relativa a la necesidad de desagregar toda la información que se emita por sexos como una de las bases para poder reconocer la realidad actual y poder transformarla, la concejala señaló que se estaba trabajando en ello y que se estaban poniendo más medios. Sin embargo, a la vista del proyecto de presupuestos para 2018 en el programa de igualdad resulta llamativo que no aumente la partida relativa al capítulo de personal del negociado de igualdad, siendo uno de los pilares básicos para poder desarrollar en condiciones las imprescindibles políticas para la igualdad real entre hombres y mujeres.

Por este motivo, planteamos la siguiente:

MOCION DE CONTROL

1. El Pleno del Ayuntamiento de Donostia / San Sebastián insta al Equipo de Gobierno a establecer un cronograma para la adecuación de las estadísticas y estudios municipales de tal forma que toda la información pueda estar desagregada por sexos como base para reconocer la situación real de las mujeres en la ciudad y a partir de ahí poder desarrollar el próximo plan para la Igualdad de mujeres y hombres del Ayuntamiento.

2. El Pleno del Ayuntamiento de Donostia / San Sebastián insta al Equipo de Gobierno a aumentar la partida presupuestaria del programa de igualdad que permita aumentar la plantilla del negociado de Igualdad, básico para el desarrollo de las políticas públicas de

lortzeko helburuz ezarri dituen politika publikoak garatu ahal izateko.

las que el ayuntamiento se ha dotado al objeto de alcanzar la igualdad real entre hombres y mujeres.

Donostia, 2017ko azaroaren 17a

Donostia a 17 de Noviembre de 2017

Sin.: Amaia Martin Garin,
Irabazi Donostia udal taldearen bozeramailea”.

Fdo.: Amaia Martin Garin
Portavoz del Grupo Municipal Irabazi Donostia”.

Eztabaida hasita, Amaia Martin Garin andreak, Naiara Sampedro Perez andreak, Duñike Agirrezabalaga Ugarte andreak, Juan Ramon Viles Mitxelena jaunak eta Miren Albistur Garmendia andreak parte hartu dute puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, intervienen en este punto el/las señor/as D.^a Amaia Martín Garín, D.^a Naiara Sampedro Perez, D.^a Duñike Agirrezabalaga Ugarte, D. Juan Ramón Viles Mitxelena y D.^a Miren Albistur Garmendia, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

HALA ESKATU DUTENEZ, BOZKETA PUNTUKA EGITEA ONARTU DA / PREVIA SOLICITUD, SE ACCEDE A LA VOTACIÓN POR PUNTOS:

14. KONTROL MOZIOAREN 1.GO PUNTUAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL PUNTO N.º 1 DE LA MOCIÓN DE CONTROL N.º 14:

BOZKETAREN EMAITZA:

BAZTERTUA.

GEHIENGOA.

ALDEKO BOTOAK: 8 – (6) EH BILDU, (2)

IRABAZI DONOSTIA.

AURKAKO BOTOAK: 15 – (8) EAJ-PNV, (7)

PSE-EE.

ABSTENTZIOAK: 3 – PP.

RESULTADO DE LA VOTACIÓN:

RECHAZADA.

MAYORÍA.

VOTOS A FAVOR: 8 – (6) EH BILDU, (2)

IRABAZI DONOSTIA.

VOTOS EN CONTRA: 15 – (8) EAJ-PNV, (7)

PSE-EE.

ABSTENCIONES: 3 – PP.

14. KONTROL MOZIOAREN 2. PUNTUAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL PUNTO N.º 2 DE LA MOCIÓN DE CONTROL N.º 14:

BOZKETAREN EMAITZA:

BAZTERTUA.

GEHIENGOA.

ALDEKO BOTOAK: 2 – IRABAZI DONOSTIA.

AURKAKO BOTOAK: 18 – (8) EAJ-PNV, (7)

PSE-EE, (3) PP.

ABSTENTZIOAK: 6 – EH BILDU.

RESULTADO DE LA VOTACIÓN:

RECHAZADA.

MAYORÍA.

VOTOS A FAVOR: 2 – IRABAZI DONOSTIA.

VOTOS EN CONTRA: 18 – (8) EAJ-PNV, (7)

PSE-EE, (3) PP.

ABSTENCIONES: 6 – EH BILDU.

II.1.2.15. Kontrol mozioa, IRABAZI DONOSTIA taldeak aurkeztua, igogailu publikoen diseinuari eta berrikusketari buruzkoa.

“Irabazi Donostia taldeko zinegotzi Loïc Alejandrok, Udalbatzaren Araudi Organikoaren 98. artikulua oinarri, KONTROL MOZIO hau aurkeztu nahi du. Mozioa hilabete honetako Gune Publikoen Batzordean (Obrak eta Hiri Zerbitzuak) Egiako igogailuari buruz egindako interpelazioaren ondorio da.

JUSTIFIKAZIOA

Desnibel handiko guneeetan igogailuak jartzea irisgarritasunaren aldetik aurrerapauso handia izan da. Arrapala eta eskailera mekanikoez ez bezala, igogailuek irisgarritasun unibertuala bermatzen dute, eta horregatik dira bereziki garrantzitsuak. Horregatik, halaber, ezinbestekoa da hiriko igogailuek zerbitzua etenik gabe eman dezaten ahalegintzea, eta matxuraren bat badute, lehenbailehen konpontzea.

Ez da hala gertatu Egian, Luis Martin Santos plaza eta Kapitaiñene lotzen dituen igogailuan; gaur-gaurkoz, igogailuak hilabete darama hondatuta, eta beraz, goialdean bizi edo

II.1.2.15. Moción de control que presenta el Grupo IRABAZI DONOSTIA relativa al ascensor de Egia.

“Loïc Alejandro, Concejal del Grupo Municipal Irabazi Donostia, de acuerdo con el artículo 98 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta la siguiente MOCIÓN DE CONTROL, consecuencia de la interpelación en la Comisión de Espacio Público, Obras y Servicios Urbanos del presente mes relativa al ascensor de Egia.

JUSTIFICACIÓN

La colocación de ascensores ubicados en zonas que cuentan con grandes desniveles ha supuesto un gran avance en accesibilidad. Son especialmente importantes los ascensores en la medida de que permiten la accesibilidad más universal, lo que ocurre siempre con rampas o escaleras mecánicas. Por ello mismo es imprescindible procurar que los ascensores de la ciudad den su servicio sin interrupciones, y en caso de que se averíen, que se restablezca el servicio lo antes posible.

No ha sido el caso con el ascensor que une la plaza Luis Martin Santos con Kapitaiñene en Egia que lleva más de un mes sin funcionar, con el consiguiente perjuicio de los y las

goialdera joan beharra duten auzotarrek hilabete daramate igogailua erabili ezinda.

Batzordean, Gobernuak atzerapen horren arrazoiak azaldu zituen: Lehenik, hondatutako elementu bat aldatu behar izan zen. Ordezko piezak 10 egunetik gora behar izan zituen iristeko. Pieza jartzerakoan, ekaitz handiko egun batean, teknikoak ohartu ziren ura sartzen zela eta igogailuaren sabaiko arrakala konpondu beharra zegoela. Zirkuitulaburrekin arazorik ez izateko, igogailuaren sabaia konpontzea erabaki zen. Horretarako, hainbat jarduketa egin behar izan dira, hala nola kristalak kentzea eta ingeniari baten abalarekin aldami bat jartzea. Igogailua martxan jartzeko epea nabarmen luzatu duten lan asko izan dira.

Azalpen horren harira, 3 ohar egin genituen:

- Auzotarrek ez dute igogailua konpontzean izan diren arazo berririk. Erantzun gisa, gobernu bizilagunei atzerapenaren arrazoiak jakinarazteko prest agertu zen. Alderdi hori konpondutzat eman genuen.

- Igogailua martxan jartzeko atzerapena arazo kateamendu baten ondorioa da: lehenik, piezaren matxura; gero, sabaiko arrakala. Sekuentzia hori bi modutara saihestu ahal izango litzateke ziurrenez:

- Matxura baten aurrean, igogailuaren berrikusketa zehatza egitea, ordezko pieza iritsi bitartean egon daitezkeen bestelako arazoak konpondu ahal izateko.
- Udalak eta Aldundiak elkarlanean

vecinas que viven o tienen que ir a la parte alta del barrio.

En comisión el Gobierno explicó las razones que explican esa demora: primero hubo que cambiar un elemento averiado. La pieza de recambio tardó más de 10 días en llegar. Cuando se iba a colocar la pieza, un día de fuerte tormenta, los técnicos se dieron cuenta de que entraba agua y que había una fisura en el techo del ascensor. Para evitar cualquier problema de corto-circuito, se decidió arreglar el techo del ascensor. Para poder realizar esa operación ha sido necesario realizar varias actuaciones, entre las cuales retirar los cristales, y colocar un andamio que tuvo que ser avalado por un ingeniero. Muchas operaciones que alargaron considerablemente el plazo de puesta en marcha del ascensor.

A raíz de esa explicación hicimos 3 observaciones:

- Los y las vecinas no conocen los problemas que han surgido entorno a la reparación del ascensor. En su contestación, el Gobierno se mostró dispuesto a comunicar con el vecindario para explicarle las razones de la demora. Consideramos este aspecto solventado.

- La demora en la puesta en marcha del ascensor se debe a un encadenamiento de problemas: primero la pieza averiada, luego la fisura en el techo. Se podía haber probablemente evitado esa secuencia de dos formas:

- Realizar una revisión exhaustiva del ascensor cuando se detecta una avería, de tal forma que mientras se espera a una pieza de recambio se pueden arreglar los eventuales otros problemas detectados.
- Mejorar el protocolo de revisión de

egiten dituzten igogailuen berrikusketen protokoloa hobetzea, higadurak baldintza normaletan hauteman ahal izateko, Egiako igogailuaren arrakala, kasu.

- Igogailuaren sabaia konpontzeko egin behar izan diren lanak konplexuak eta garestiak izan dira. Igogailuaren diseinu originala mantentze eta konponketa lanak erraz egiteko modukoa balitz, epeak laburragoak eta gastuak txikiagoak izango lirateke.

Hori dela eta, KONTROL MOZIO hau aurkezten dugu:

KONTROL MOZIOA

1. Donostiako Udalbatzak Udal Gobernuari eskatzen dio egin ditzala beharrezko gestioak, igogailu publiko batek matxura bat duenean haren berrikusketa zehatza egiteko, bestelako matxurak edo egon daitezkeen higadurak hautemateko eta beharrezko konponketa guztiak batera egiteko.

2. Donostiako Udalbatzak Udal Gobernuari eskatzen dio igogailu publikoen berrikusketa protokoloa hobetu dezala, Aldundiarekin elkarlanean, matxurak, higadurak edo akatsak garaiz hautemateko.

3. Donostiako Udalbatzak Udal Gobernuari eskatzen dio igogailu publikoak eraikitzeke agirietan mantenua eta konponketak errazten dituzten diseinu irizpideak erabil ditzala, ahal den neurrian.

Donostia, 2017ko azaroaren 17a

ascensores que realizan conjuntamente el Ayuntamiento y la Diputación, de tal forma que los desgastes como la fisura del ascensor de Egia puedan ser detectados en condiciones normales.

- Las operaciones que han sido necesarias para poder reparar el techo del ascensor son complejas y caras. Con un diseño original del ascensor que facilite el mantenimiento y las reparaciones, se habrían reducido los plazos y los gastos.

Por todo lo anteriormente expuesto, presentamos la siguiente:

MOCIÓN DE CONTROL

1. El Ayuntamiento Pleno de Donostia / San Sebastián insta al Gobierno municipal a realizar las gestiones necesarias para que, cuando se manifieste una avería en un ascensor público, se proceda a una revisión exhaustiva del mismo, con el fin de detectar otras averías o desgastes potenciales, y así hacer todas las reparaciones necesarias conjuntamente.

2. El Ayuntamiento Pleno de Donostia / San Sebastián insta al Gobierno municipal a mejorar el protocolo de revisión de ascensores públicos, conjuntamente con la Diputación, con el fin de detectar averías, desgastes o desperfectos de manero precoz.

3. El Ayuntamiento Pleno de Donostia / San Sebastián insta al Gobierno municipal a incorporar, en la medida de lo posible, en los pliegos para la construcción de ascensores públicos, criterios de diseño que favorezcan y simplifiquen el mantenimiento y las reparaciones.

Donostia, a 17 de noviembre de 2017

Sinatua: Loïc Alejandro,
Irabazi Donostia taldeko zinegotzia”.

Fdo. Loïc Alejandro
Concejal del Grupo Irabazi Donostia”.

Loïc Alejandro jaunak parte hartu du puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Interviene en este punto el señor Loïc Alejandro en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

BOZKETAREN EMAITZA:
ONARTUA.
AHO BATEZ.

RESULTADO DE LA VOTACIÓN:
APROBADA.
UNANIMIDAD.

II.1.2.16. Kontrol mozioa, IRABAZI DONOSTIA taldeak aurkeztua, bizitzaren iraunkortasun erantzunkideari buruzkoa.

“Irabazi Donostia udal taldearen bozeramaile Amaia Martin Garinek, Udalbatzaren Araudi Organikoaren 98. artikulua oinarri, ondorengo KONTROL MOZIOA aurkezten du, hil honetan PERTSONENTZAKO ZERBITZUETAKO Batzordean zaintza erantzunkideei buruz egindako interpelazioaren ondorioztat.

JUSTIFIKAZIOA

Udal talde honek erronkatzat hartzen du bizitzaren iraunkortasunak garapen sozialaren ardatza izan behar duela, hiriak oinarritzat hartu behar duena, Donostiako hiritarrek merezitako bizitza bat bizi dezaten. Pertsonak, planetak eta horien iraunkortasuna eraikuntza politiko, sozial eta ekonomikoaren erdian jartzea beharrezkotzat jotzen dugu.

II.1.2.16. Moción de control que presenta el Grupo IRABAZI DONOSTIA en relación con los cuidados corresponsables.

“Amaia Martin Garin, Portavoz del Grupo Municipal Irabazi Donostia, de acuerdo con el artículo 98 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta la siguiente MOCIÓN DE CONTROL, consecuencia de la interpelación en la Comisión de SERVICIOS A LAS PERSONAS de este mes en relación con los cuidados corresponsables.

JUSTIFICACIÓN

Este grupo municipal se plantea el reto de la sostenibilidad de la vida como uno de los ejes de desarrollo social sobre los que ha de asentarse la ciudad al objeto de que la ciudadanía donostiarra pueda desarrollar una vida digna de ser vivida. Consideramos necesario colocar a las personas y al planeta, así como a su propia sostenibilidad en el centro de la construcción política, social y económica.

Horrek bistakoa izan beharko luke, planetaren eta gizakiaren beraren bizitzeko sen hutsez. Hala ere, gaur egun nagusi den sistemak jarduera ekonomikoaren eta ekoizpenaren onurak ditu arautzat, horrek gizartean eta ingurumenean dituen ondorioak kontuan izan gabe. Finean, sistema horrek pertsonak tresnatzat ditu eta ekoizle edo kontsumitzaile bihurtzen dira, eskubideak murriztuz, norbere bizitzaren balioa galduz eta guztiei modu berean bizitza duin bat garatzea galaraziz.

Sistema ekonomikoak bizitzaren ugalketarekin eta pertsonen zaintzarekin lotutako lanak ikusezin bihurtu ditu. Eta horri dagokionez, bereziki azpimarratu behar da egiteko horiek emakumeen esku egon direla eta oraindik ere badaudela, eta ordaindu gabe eta baldintza eskasetan egiten direla. Bizitza iraunarazteko ardurak ikusezina eta feminizatua izateari utzi behar dio.

Errealitatea, orokorrean, emakumeen eta gizonen desparekotasunari buruzko datu errealek erakusten dute, eta bereziki, zaintzaren ekonomiaren eta bizitzaren iraunkortasunaren baitan. Modu horretan, kuantifikatuta dago emakumeek, batez beste, gizonak baino ordubete gutxiago dutela aisialdirako, etxeko lanez eta zaintzaz arduratzeagatik. Europan, gizonen % 30ek baino gutxiagok egiten ditu erosketak. Emakume batek etxetik kanpo lan egindako ordu bakoitzeko, gizonak 5 minutu gehiago bakarrik eskaintzen dizkie etxeko lanei. Gizonak emakumeek baino ordu eta erdi gehiago dute aisialdirako astean, eta hiru ordu gehiago asteburutan. Europan, familien % 3k soilik partekatzen ditu etxeko lanak erantzunkidetasunez. Espainian, zaintzarekin lotutako arazoengatik lana uzten duen gizon bakoitzeko 27 emakumek egiten dute gauza

Esto debiera de ser algo evidente simplemente por el instinto de supervivencia del planeta así como del propio ser humano. Sin embargo, el sistema actual imperante mantiene los beneficios de la actividad económica y productiva como máxima, sin importar las consecuencias sociales y medioambientales que ésto produzca. En definitiva, este sistema considera de forma instrumental a las personas que se convierten en productoras y/o consumidoras recortando derechos, desvalorizando la propia vida e impidiéndoles desarrollar una vida digna para todas por igual.

El sistema económico ha invisibilizado la tareas relacionadas con la reproducción de la vida y los cuidados de las personas. Y en este punto se ha de hacer un especial hincapié en que estas tareas además han estado y siguen estando en manos de las mujeres, realizándose de forma no remunerada y en condiciones precarias. Es preciso que la responsabilidad de sostener la vida deje de estar invisibilizada y feminizada.

La realidad la demuestran los datos de la desigualdad real entre hombres y mujeres en general y en el seno de la economía de los cuidados y la sostenibilidad de la vida en particular. De este modo, está cuantificado que las mujeres disfrutan, de media, de una hora menos de ocio que los hombres por encargarse de las tareas domésticas y de cuidados. En Europa, menos del 30% de los hombres hacen la compra. Por cada hora que una mujer trabaja fuera de casa, el hombre solamente aumenta 5 minutos su aportación a las tareas domésticas. Los hombres disfrutan de 1 hora y media más de tiempo libre a la semana y tres los fines de semana, respecto a ellas. En Europa, solamente un 3% de las familias comparten tareas corresponsablemente. En España, por cada hombre que abandona su trabajo por causas de cuidados, lo hacen 27 mujeres. El 83% de personas que cuidan a una persona en situación

bera. Mendekotasun egoeran dagoen norbait zaintzen duten pertsonen % 83 emakumea da.

Horrenbestez, errealitate hori gainditu behar da, berdintasun errealeko eredu baterantz lan egiteko, eta horretarako, funtsezkoa da zaintza lanen balioa gehitzea eta lankidetzaren eta elkarrekiko laguntzaren kultura bat bultzatzea, pertsonak erdigunean jartzen dituen eta haien oinarriko premiak gogobeteta dituen.

Funtsezkoa da erakunde publikoetatik zaintza eta bizitzaren iraunkortasuna lurraldearen garapenerako estrategien erdian jartzeko mekanismoak finkatzea. Pertsonen ongizatea eta planetaren iraunkortasuna bermatzen duten alternatiba eraldatzaile horiek bilatzeko orduan, eraldaketa sakonak sustatzen dituzten politikak garatu behar dira, elkartasunean eta kooperazioan oinarrituta, ez sexistak ez heteropatriarkalak ez diren gizarteak eraikitzeko.

Donostiako gizartearen errealitatea kontuan izanda –zahartze progresiboarekin eta emakumeak hiriko bizitzaren iraunkortasunean duen egitekoarekin– uste dugu funtsezkoa dela erantzunkidetasuna politika publikoen erdian jarriko duten oinarriak planteatzea.

Hil honetako batzordean aurkeztu dugun interpelazioan, Udalaren Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako III. Planak –2014tik martxan dagoenak eta datorren 2018an amaitzeko epemuga duenak– esku hartze lerro batzuk dituela adierazi dugu, eta horien artean zaintza erantzunkideei dagokienak sei helburu eta 14 neurri zehatz dituela. Plana ezartzeko adierazleen artean, proposatutako neurrien % 35,7 abiarazi zen iaz, eta neurri bakoitzak zituen esku hartze lerroei eginiko jarraipen txostenaren arabera, horietatik % 6,7 besterik ez zen zaintza erantzunkideen arlokoa.

de dependencia son mujeres.

Por lo tanto, hay que superar esta realidad al objeto de trabajar hacia un modelo donde la igualdad sea real y para ello es fundamental valorizar el trabajo de los cuidados, favorecer una cultura de cooperación y apoyo mutuo donde las personas sean el centro y la satisfacción de sus necesidades básicas estén cubiertas.

Es fundamental establecer mecanismos desde lo público que coloquen los cuidados y la sostenibilidad de la vida en el centro de la estrategia de desarrollo territorial. En esta búsqueda de alternativas transformadoras que aseguren el bienestar de las personas y la sostenibilidad del planeta se han de desarrollar políticas que, basadas en la solidaridad y la cooperación, impulsen transformaciones profundas que contribuyan a construir sociedades no sexistas ni heteropatriarcales.

Teniendo en cuenta la realidad social de Donostia/San Sebastián, con un envejecimiento progresivo y el papel que la mujer está desempeñando en la sostenibilidad de la vida en la ciudad, consideramos fundamental plantear las bases que pongan en el centro de las políticas públicas la corresponsabilidad.

En la comisión del presente mes, en la interpelación presentada, señalábamos que el III Plan para la Igualdad de Mujeres y Hombres del Ayuntamiento, en marcha desde 2014 y con un horizonte temporal que culmina el próximo año 2018, cuenta con una serie de ejes, entre los cuales, el relativo a los cuidados corresponsables, cuenta con con seis objetivos y 14 medidas concretas. Dentro de los indicadores relativos a la implantación del Plan, el pasado año se implementaron el 35,7% de las medidas planteadas y según el informe de seguimiento llevado a cabo de las líneas de actuación que

Horren aurrean, zinegotzi ordezkariak adierazi zuen zailtasunak daudela zaintza erantzunkideen arloko neurriak abiarazteko orduan. Era berean, ikus dezakegu datorren urterako aurrekontu proiektuan zaintza partekaturako diru partida ia % 70 jaitsi dela aurreko urtearekin alderatuz, 2.500 €-ko ekarpena utziz gai hori modu espezifikoan lantzeko.

Gure taldetik, erantzunkidetasuna eta bizitzaren iraunkortasuna hiriaren garapen sozialerako funtsezko ardatz gisa jartzeko beharra planteatzen dugu, hiriak emakumeen eta gizonen berdintasun errealerantzko bidean aurrera egiteko. Tryggvi Hallgrimsson islandiarra ekarri nahi dugu gogora, Islandiako Genero Berdintasunaren zentroko aditua. Duela urtebete pasa, Gipuzkoako Foru Aldundiko Berdintasunerako Organoak antolatu zuen “Berdintasuna eta Kontziliazioa” kongresuan parte hartu zuen, eta gogorarazi zuen genero berdintasuna emakumeen eskubideekin lotuta egoteaz gain, bizi kalitatearekin ere lotuta dagoela. Haren ustez, berdintasun politikak ezinbestekoak dira biztanleriaren zahartzeari eta ekonomiaren iraunkortasunari aurre egiteko. Kongresu hartan, Gipuzkoako Foru Aldundiko ahaldun nagusiak berak adierazi zuen “Zuzentzen duen gobernu foralak Gipuzkoa Europako genero desparekotasun gutxieneko lurralde bilakatzea duela helburu”. Eta Donostia denez hiriburua, tokiko gobernu honek arlo horretan aurrera egin behar du, esan dugun bezala, funtsezkoa delako bizitzaren iraunkortasunerako.

Aipatu ditugun elementu guztiak kontuan izanda, kontrol mozio hau aurkezten dugu:

contaban cada una de las medidas, solamente el 6,7% pertenecían a cuidados corresponsables.

Ante este hecho, la concejala delegada señaló la dificultad de implementar medidas en materia de cuidados corresponsables. De igual modo, podemos observar cómo en el proyecto de presupuestos del próximo año la partida para cuidados compartidos se ha reducido respecto al año anterior en casi un 70%, dejando en 2.500 € la aportación para trabajar este tema de forma específica.

Desde nuestro grupo planteamos la necesidad de implementar el ámbito de la corresponsabilidad y de la sostenibilidad de la vida como eje fundamental para el desarrollo social de la ciudad que avanzaría en el camino hacia la igualdad real de hombres y mujeres. Queremos recordar al experto islandés del centro de Igualdad de Género de Islandia, Tryggvi Hallgrimsson, que participó hace poco más de un año en el Congreso Igualdad y Conciliación organizado por la Dirección de Igualdad de la Diputación Foral de Gipuzkoa, recordando que la igualdad de género está relacionada no solo con los derechos de las mujeres sino también con la calidad de vida. Las políticas de igualdad, a su juicio, son imprescindibles para hacer frente al envejecimiento de la población y la sostenibilidad económica. La propia Diputación Foral de Gipuzkoa, de la mano del diputado general, en el ámbito del mismo Congreso señaló que “El Gobierno foral que encabezo se ha propuesto convertir a Gipuzkoa en el territorio europeo con menor desigualdad entre géneros”. Siendo Donostia su capital, es preciso que en el ámbito local, este gobierno avance en este ámbito que como decíamos es esencial para la sostenibilidad de la vida.

Por todos los elementos señalados anteriormente, presentamos la siguiente:

KONTROL MOZIOA

1. Donostiako Udaltzarak Gobernu Taldeari eskatzen dio aurkez dezala publikoaren aurrean hiriko bizitzaren iraunkortasun erantzunkiderako plan bat, urtebeteko epean.

2. Donostiako Udaltzarak Gobernu Taldeari eskatzen dio plan hori berdintasunaren aldeko Aholku Kontseilurekin batera garatu dezala, eta planaren helburua izan dadila bizitzaren iraunkortasunarekin eta zaintzarekin erantzunkideak diren gizarte eta ekonomia antolakuntzako ereduak kolektiboki definitzea.

3. Donostiako Udaltzarak Gobernu Taldeari eskatzen dio handitu dezala zaintza partekatuei dagokien aurrekontu ekarpena, emakumeen eta gizonen berdintasunean aurrera egin ahal izateko.

Donostia, 2017ko azaroaren 17a

Sin.: Amaia Martin Garin,
Irabazi Donostia udal taldearen bozeramailea”.

MOCION DE CONTROL

1. El Pleno del Ayuntamiento de Donostia / San Sebastián insta al Equipo de Gobierno a elaborar y presentar públicamente en el plazo de un año, un Plan de Sostenibilidad corresponsable de la Vida en la ciudad.

2. El Pleno del Ayuntamiento de Donostia / San Sebastián insta al Equipo de Gobierno a elaborar tal Plan en colaboración con el Consejo Asesor de Igualdad y su objetivo será definir colectivamente modelos de organización social y económica corresponsables con la sostenibilidad y el cuidado de las vidas.

3. El Pleno del Ayuntamiento de Donostia / San Sebastián insta al Equipo de Gobierno a ampliar la aportación presupuestaria a la partida relativa a los cuidados compartidos al objeto de avanzar en la igualdad de hombres y mujeres.

Donostia a 17 de Noviembre de 2017

Fdo.: Amaia Martin Garin
Portavoz del Grupo Municipal Irabazi Donostia”.

Eztabaida hasita, Amaia Martin Garin andreak, Naiara Sampedro Perez andreak, Duñike Agirrezabalaga Ugarte andreak eta Miren Albistur Garmendia andreak parte hartu dute puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, intervienen en este punto las señoras D.^a Amaia Martín Garín, D.^a Naiara Sampedro Perez, D.^a Duñike Agirrezabalaga Ugarte y D.^a Miren Albistur Garmendia, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

BOZKETAREN EMAITZA:

BAZTERTUA.

GEHIENGOA.

ALDEKO BOTOAK: 2 – IRABAZI DONOSTIA.

AURKAKO BOTOAK: 18 – (8) EAJ-PNV, (7)

PSE-EE, (3) PP.

ABSTENTZIOAK: 6 – EH BILDU.

RESULTADO DE LA VOTACIÓN:

RECHAZADA.

MAYORÍA.

VOTOS A FAVOR: 2 – IRABAZI DONOSTIA.

VOTOS EN CONTRA: 18 – (8) EAJ-PNV, (7)

PSE-EE, (3) PP.

ABSTENCIONES: 6 – EH BILDU.

II.1.2.17. Kontrol mozioa, IRABAZI DONOSTIA taldeak aurkeztua, herritarren pertzepzioari buruzko inkestari buruzkoa.

“Irabazi Donostia udal taldeko zinegotzi Loïc Alejandrok, Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikularekin bat, honako KONTROL MOZIO hau aurkeztu du, herritarren pertzepzioari buruzko inkestan emandako informazioari buruz hilabete honetako ZERBITZU OROKORREN BATZORDEAN egindako interpelazioaren ondorioz.

JUSTIFIKAZIOA

Joan den irailean, herritarren pertzepzioaren inkesta argitaratu zen. Enpresa batek gauzatu du hori, Donostian bizi diren eta 16 eta 74 urte bitarte dituzten 620 pertsonari telefono deiak eginez ekainean.

Inkesta bi zatitan banatu da: lehenengo zatia bizi kalitateri, segurtasunari, bizikidetzari eta merkataritza eta aisialdi eskaintzari buruzkoa da; bigarrena, aldiz, Gipuzkoako hiriburuko arazoei, parte hartzeari eta proiektu estrategikoei buruzkoa.

Zer datu eman diren kontuan hartuta, iruditzen zaigu datu gordin guztiak eman behar direla, ondorio zabalagoak atera ahal izateko, desberdintasun esanguratsuei buruzko ataletan datuak partzialak baitira. Adibidez, inkestaren bigarren zatian, 11. orrialdean, "ENPRESA BERRIAK ERAKARTZEKO AHALMENA" ezaugarriari dagokionez,

II.1.2.17. Moción de control que presenta el Grupo IRABAZI DONOSTIA en relación con la información facilitada en la encuesta de percepción ciudadana.

“Loïc Alejandro, concejal del Grupo Municipal Irabazi Donostia, de acuerdo con el artículo 98 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta la siguiente MOCIÓN DE CONTROL, consecuencia de la interpelación en la COMISIÓN DE SERVICIOS GENERALES de este mes en relación con la información facilitada en la encuesta de percepción ciudadana.

JUSTIFICACIÓN

El pasado mes de septiembre se publicó la encuesta de percepción ciudadana que ha llevado a cabo una empresa mediante llamadas telefónicas a 620 personas durante el mes de junio a residentes en Donostia / San Sebastián de entre 16 y 74 años.

La encuesta se ha dividido en dos partes: la primera entrega sobre calidad de vida, seguridad, convivencia y oferta comercial o de ocio; y la segunda, sobre los problemas, la participación o los proyectos estratégicos de la capital guipuzcoana.

De los datos aportados, observamos que es necesario facilitar todos los datos en bruto al objeto de poder extraer conclusiones más amplias ya que en los apartados relativos a las diferencias significativas los datos son parciales. Por ejemplo, en la segunda parte de la encuesta, página 11, podemos ver en qué barrios hay una mejor valoración de la

balorazio hoberena jaso duten auzoak ikus ditzakegu, baina ezin dugu jakin zer auzotan jaso duen balorazio okerrena. Eta berdin gertatzen da “desberdintasun esanguratsu” esaten zaien koadro guztietan.

Gobernuak baietz erantzun izan dio zenbait aldiz datuak open data formatuan herritarren esku jartzeko egin dugun eskariari, herritarrek informazio gehiago atera ahal izateko egindako inkestatik. Alabaina, Bulego Estrategikoaren web orrian ez daude eskuragarri datu horiek formatu horretan.

Gure taldeak hil honetako batzordean egindako interpelazioa kontuan hartuta, Gardentasuneko zinegotzi ordezkariak esan zuen inkesta osoa herritarren eskura jartzea ez zela interesgarria herritar guztientzat, eta erantsi zuen hura argitaratzeak ez zuela gardentasun handiagorik ekarriko bere ustez.

